



Legarretak eta Santxotena agotei buruzko liburu berria aurkeztu zuten atzo, Donostian.

Agotei buruzko informazio argitaragabea ezagutzera eman dute, lehen aldiz, euskaraz

Herri horri buruzko beste liburu bat kaleratu dute Legarretak eta Santxotena

✍ **Harri X. Fernández**
 📍 **Ruben Plaza**

DONOSTIA – 2018. urtean *El orgullo de ser agote* idatzi ostean, eta berriro ere Ereinen eskutik, hainbesteko jazarpena jasandako eta Pirinioetako alde bietan bizi izan zen talde sozial horren inguruko beste saikera bat argitaratu dute Josu Legarretak eta Xabier Santxotena: *Agotak, berdintasunaren alde borrokalari*. Donostiako Liburutegi Nagusian aurkeztu zuten atzo egileek, "heretikotzat jo" eta bizitza publikotik bazterreraren kondena-tutako herriari buruzko ikerketa berria. Historiako hainbat une jakinetan boteretsuek hain aldeko politikak bultzatu bazituzten ere, aski ezaguna da agotek jasandako segregazioa: ezin ziren herribilduetan bizi, elizan ere bazter batean egon behar zuten, arropa ezberdina jantzi behar...

Hitza hartu ahala ekarri dute gogora autoreek, orain sei urte, aurreko liburuen aurkezpen biran, jendea hurbildu eta sarritan galde-

ra bera egiten zietela, alegia, zein ote zen agoten hizkuntza? Eta beraiek, "erraza" erantzuten omen zieten beti, "euskaraz". Horixe erakusten du 1654. urtean Nafarroako Burgi herrian agoten aurkako prozesu judizial bateko aktak. Bertan jasota dagoenez, idazkariak azalpenak euskaraz eman zizkien agotei. Legarretak eta Santxotena dokumentu hori irakurri bezain pronto erabaki zuten agotek euskarazko idatzitako liburu bat merezi zutela, eta oraingo honi, aurrekoarekin alderatuta, hipotesi eta informazio berria gehitu egin diote autoreek. Beraz, osatuagoa ere bada.

Azken sei urteetan, hango eta hemengo artxiboak arakatzeko aritu dira eta orain arte "inork erabili gabeko" dokumentuak azalratzea lortu dute. Adibide bat jarri zuen Legarretak: 1675 Aria lizentziatuak Nafarroako Gorteen aginduz Baztan aldean bizi ziren agoten inguruan idatzitako 130 orrialdeko txostena ahanzturatik berreskuratu dute.

"Liburu honek Nafarroako historia hobeto ulertzen" lagunduko du-

la uste dute egileek. Hain zuzen ere, bi herrialde horietan errotutako agoten eta haiei buruzko prozesuen ingurukoak azalerratu nahi izan dituzte. Are gehiago, "nazioarteko" testuinguruan ere kokatu dituzte agotak, haien aldarrikapenak Europako beste herrialdeetan mugimendu sozialek egindakoekin alderatuz. Aldarrikapenak antzekoak omen ziren, jarrera ez ordea. Frantzia eta Alemanian, esaterako, aldarrikapenak lortzerako bidean biolentzia erabiltzen zuten, agotek, aldiz, epaitgetara jotzen zuten.

AGOTEN GEOGRAFIA Beste hainbat datu berri ere ezagutzera eman dituzte *Agotak, berdintasunaren alde borrokalari liburuan*. Agoten bizileku izandako 142 herri identifikatu dituzte ikertzaileek. Nafarroan 66 herri ziren; Iparraldean, beste hainbeste; Zaragoza aldean hiru eta Huescan, zazpi bat. Datu horiek argi erakusten dute agoten geografia ez zela Nafarroa mugatzen, eta inguruko beste herrialdeetan ere sakabanatu zirela. ●

KURSAAL ESZENA



DATOZEN IKUSKIZUNAK PRÓXIMOS ESPECTÁCULOS

BULEGO

Auditorio Kursaal Auditorioa

La banda pop referente del panorama euskaldun, estrena su esperado álbum "Al datu aurretik" en el Kursaal. La presentación promete ser un viaje sonoro y visual que dejará una huella única.

Martxoa 10 Marzo / 19:00
18 €



"LA PASIÓN SEGÚN SAN JUAN", BACH

Auditorio Kursaal Auditorioa

La Cetra Baroque Orchestra & Vocalconsort Basel
 Andrea Marcon, zuzendaria

Martxoa 19 Marzo / 19:30
62 / 50 / 40 / 32 / 11 €

Abonos clásica a la venta **-20%**



"MISTERIOA"


Sala de Cámara Kursaal Ganbera Aretoa

Euskadiko Orkestrako Musika Gelaren ekoizpena
 Euskadiko Orkestrako ganbera taldea

Apirila 13 Abril / 18:00
7 € / 3 € (<12 urte)

6-10 urte bitarteko haurrentzat

MUSIKA FAMILIAN



CHRISTIAN ZACHARIAS, pianoa

Auditorio Kursaal Auditorioa

Obras de Schubert, Haydn, Couperin, Scarlatti y Poulenc

Apirila 28 Abril / 19:00
35 / 28 / 22 / 18 / 11 €

Abonos clásica a la venta **-20%**



WWW.SARRERAK.KURSAAL.EUS

Laguntzaileak / Colaboradores:



Enpresa Elkartzak / Empresas Asociadas:



Komunikabide Elkartzak / Medios Asociados:

